

2023ko urriak 6

INFO

Irakaskuntza Heziketa Berezia

<https://irakaskuntza.lab.eus/>

Araba: 648735679

heziketabereziaaraba@lab.eus

Bizkaia: 666778152 / 666771867

heziketaberezia@lab.eus

heziketabereziabizkaia@lab.eus

Gipuzkoa: 666775703

heziketabereziagipuzkoa@lab.eus



Hitzarmenaren negoziazioa berreskuratu dugu

LABek hezkuntza sailarekin ekainean sinaturiko akordioa oinarri hartuko da negoziazio fase berri honetan.

Gaur, urriak 6, lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen mahaia osatu da. Azken hauteskunde sindikaletan lortutako ordezkartzaren arabera eratu da. LAB %40,81; STEILAS %30,61; ELA %28,57; CCOO %7,27; UGT %3,63.

Ordezkaritza hau izanik, lan hitzarmenaren negoziazioa berreskuratu dugu. Horretarako, LABek Hezkuntza sailarekin ekainean sinaturiko akordio laborala hartuko da oinarri gisa.

Hezkuntza sailak, akordio proposamen bat helarazi digu, bertan negoziatzeko gaiak zehazten dira. Gerora, akordio honetan oinarrituko ginatete gaiz-gai lan hitzarmen berriaren artikulua guztiak negoziatzeko. Honekin batera, negoziatzeko urte bukaera arteko egutegia aurkeztu digute.

LABetik proposamen hau aztertuko dugu eta afiliazioarekin landuko ditugu datozen hilabeteetan negoziatioari dagozkion gaiak.

Meritu bidezko LEPari dagokionean, urria bukaerarako onartutakoen eta baztertutakoen behin-betiko zerrendak argitaratuko dituztela jakinarazi zaigu. Jarraian, tribunalaren osaketa egingo da. Katgoria bakoitzerako bat. Tribunalaren partaideak zozketa bidez aukeratuko dira eta borondatez ere aurkezteko aukera egongo da. LABek eskatu bezala, LEParen bitartez egonkortuko diren langile berriek haien lanpostuen aukeraketa egin aurretik, lekualdatze lehiaketa egongo da langile finkoentzat.

Kontratazioaren inguruan ere aritu gara. Ekoizpen kontratuen luzapena negoziatu nahi dute. Gaur gaurkoz 6 hilabete baino gehiagorako ezin dira luzatu. LABetik gure kolektiborako mesedegarri izan daitezkeen neurriak lortzeko baliatuko genuke balizko akordio hau.

Ikasturte hasieran ordutegiekin arazoak izaten direla ere aipatu dugu. Ordutegiekin ez bazaude ados jarri gurekin harremanetan eta mahai parekide bat eskatuko dugu.

Gure mahai negoziatzailean negoziatuko ditugun gaiez gain, ezinbesteko zaigu funtzio publikoko mahai orokorrekoak diren gaiak aipatzea: eros ahalmena bermatzeko soldata igoerak, aurre erretirorako neurriak edota birjartze tasa, besteak beste. Gaia hauek hemen negoziatzeko aldarrikapenarekin urriaren 25ean eta abenduaren 19an greba egin eta kalera atera zaitezte!

